

XXI. Mendeko Akordioa:
Bai Euskarari

ATZO EUSKARAREN ALDEKO ITUNA SINATU ZUTENEK DEI EGIN ZIOTEN GIZARTEARI KONPROMISOA HARTZEKO

Akordio historikoa

Euskal Herri osoko 22 erakundek eman zioten atzo Iruñean baietza euskararen aldeko akordioari, «Euskal Herrian hizkuntza zaharraren etorkizuna datorren menderako segurta dezan». Sinatzaile guztiek azpimarratu zuten akordioa historikoa dela, eta garrantzia handia izango duela etorkizunean.

Alberto Barandiaran/Iruñea

LAN mundua, irakaskuntza eta kirola, ipar zein hego, bereziki ordezkaturik egon ziren atzo Iruñeko ekitaldian. Sinatutakoak normalizazioa behin betiko bideratuko duen prozesua abiarazteko konpromisoa nabarmentzen du, eta dei egiten die Euskal Herriko gizarte eragile guztiei akordiora biltzeko.

Ekitaldi handien lurrina izan zuen atzokoak, aurpegi ezagunak bildu baitziren Planetariumean. Hotzari erreparatu gabe, ia orduan hasi zen ekitaldia, Xabier Mendiguren Kontseiluko lehendakaria, Felix Marti Unescokoa eta Iñaki Uriá EGUNKARIAKO kontseilari ordezkaria Duguna Iruñeko dantza taldekoen arkuen artean sartu zirenean. Haien atzetik, gonbidatutako guztiak.

Ekitaldia Pili Kaltzada eta Michel Oronozek aurkeztu zuten, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez. Segidan, Joxe Jabier Iñigok hartu zuen hitza, eta azaldu atzo sinatu zen akordioaren ondorengo etorriko den Egitasmo Estrategikoak emango diola benetan esanahia prozesu osoari. «Gure ustez, Egitasmo Estrategikoa da hizkuntza baten normalizazioa eraginkortasunez hasteko modu onena». Iñigok azaldu zuen, halaber, prozesu hau instituzioen planekin uztartzeko borondate irmoa duela Kontseiluak, eta espreski aipatu zituen Nafarroako Gobernuaren hizkuntza sustapenerako programak, Eusko Jaurlaritzaren Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia eta Iparraldean onarpen zabala lortu duen Antolakuntza Eschema.

Ondotik, lurralde bakoitzetik



Iruñeko Planetariumean atzo goizean egin zen sinatze ekitaldia.

OSKAR MONTERO

lekuko bat azaldu zen oholta gainean, euskararekin izaniko harremana laburbiltzeko. Denek goraiatu zuten akordioak dakarrena, eta haiek bizi izandako garai beltzekin —«argitasun gabekoekin»— alderatu zuten.

Orduan iritsi zen sinatzeko ordua. Banan-banan, antolatzailerik dei egin zieten bertaraututako guztiei, eta, zortzinakako

taldeetan, agiriak izenpetu zituzten. Azkenik, hainbat gaztek etorkizunean euskaraz bizi eta ikasteke euren desioa plazaratu ondoren, Xabier Mendigurenek eta Felix Martik ere paratu zuten sinadura akordioaren testu gainean.

Mendigurenek azaldu zuenez, atzoko ekitaldia gerora etorriko diren askoren aitzindaria izango

da, eta sartzera goazen mende berrian euskarak bizirik irautea eta garapen osoa lortzea du helburu. Euskarak, norbanakoen konpromisoa ez ezik, gisa guztietako erakundeen babesa eta laguntza ere behar duela gogoratu ondoren, Mendigurenek biziki eskertu zuen erakundeetako 22 ordezkariak Iruñera joan eta akordioa sinatu izana.

SINATZAILEAK

- Agrupaciones de Sociedades Laborales de Euskadi
- Asociación Navarra de Empresas laborales
- Athletic Club Bilbao
- Aviron Bayonnais
- Euskadiko Kutxa
- Club Athletico Osasuna
- Club Deportivo Alavés
- Euskadiko Langile Komisioak (CCOO)
- Confédération Française du Travail du Pays Basque (C.F.D.T)
- Deustuko Unibertsitatea
- Iruñeko Gotzaingoa
- Euskal Herriko Nekazarien Elkarte (E.H.N.E)
- Euskal Laborarien Batasuna (E.L.B.)
- Euskal Langile Alkartasuna (E.L.A.)
- Federaciones de Centros Regionales de Euskadi
- Hemen
- Herrikoa
- Langile Abertzaleen Batasuna (L.A.B.)
- Mondragon Corporación Cooperativa (M.C.C.)
- Mondragon Unibertsitatea
- Real Sociedad de Fútbol
- Universidad de Navarra. Escuela de Ingenieros

Bai Euskarari Akordioa

Prozesu horren gakoa gizarteko estamentu guztiak bertan inplikatzeko datza. Euskararen Gizarte Erakunde Kontseiluak egindako gonbiteari erantzunez, Akordio honetan Euskal Herriko gizarte-eragile nagusiok euskararen normalizazio osora iristeko dugun prestutasuna jaso dugu, guztiak protagonista izango dituen eskuhartze-prozesu ireki batean, eta beharrezko izango diren neurri normalizatzaileak adosteko konpromiso argiarekin

Behean sinatzen dugun gizarte eragileek:

1. Euskarak garapen osoa lor dezan bere normalizazioa behin betiko bideratuko duen prozesu batean eskuhartzeko konpromisoa adierazten dugu.

2. Prozesu hori hizkuntza normalizaziorako Plan Estrategiko bat prestatuz eta ezarrit burutuko dugu. Horren bitartez hizkuntzaren egoera

sektore eta lurraldez lurralde aztertuko dugu, maila bakoitzean beharrezko neurri normalizatzaileak finkatuko ditugu, eta horien arabera, plana diseinatzen eskuhartuko dugun gizarte-eragileok konpromiso zehatz eta borondatezkoak hartu eta praktikan ezarriko ditugu.

3. Euskal Herriko gizarte-eragile guztiei akordio honetara biltzeko proposamena egiten diegu. Akordio eta konpromiso-dinamika honetan euskal gizarteak bere hizkuntza berreskuratzeko duen borondate garbia islatu nahi da. Erabaki hori gizartearen adierazgarri diren gizarte-eragileen eskuhartze zabalaren bitartez bideratu ahal izateko guztiei zabalik daude Bai Euskarari Akordioa eta ondoren burutuko den konpromiso prozesua.

Hemen sinatzen dugun Bai Euskarari Akordio honek segurta dezala datorren menderako euskararen etorkizuna Euskal Herrian.

Atzo sinatu zuten Euskal Herriko eragile nagusiek

Bai Euskarari Akordioa, Iruñean. Honela dio testuak:

Euskara 2000. urtearen atarira heldu da. UNESCOren arabera, gaur egun munduan dauden lau mila hizkuntza baino gehiagotik, mila galduko dira datozen hogeitaz urteetan. Bai Euskarari Akordioan euskara hirugarren milurtean bizi eta gara dadin gure gizarteak duen erabaki sendoa islatu nahi dugu, izan ere gaur gaurkoz hori bermatu gabe baitago. Horregatik, hamarkada banaka batzuetan burura eramanez nahi dugu gaurko erritmoan askoz epe luzeagoa beharko lukeen eta agian inoiz burutuko ez litzatekeen prozesua.